



EHUren XLI. UDA IKASTAROAK XXXIV. EUROPAR IKASTAROAK

Donostia. Miramar jauregia

Gaia: Euskadin osasun mentalari ematen zaion arreta. Gaiari heltzeko eredua, dauden baliabideak, antzemandako beharrak eta sistemen arteko koordinazioa

2022, uztailak 7-8

Laburpena eta helburuak

Osasun mentala honela definitzen da: “ongizate egoera bat. Egoera horretan, norbanakoa bere gaitasunez jabetzen da, bizitzako tentsio normalei aurre egin diezaieke, modu produktibo eta emankorren lan egin dezake eta bere komunitateari ekarpen bat egiteko gauza da (Osasunaren Mundu Erakundea, OME)”. Pertsona orok “ahalik eta osasunik onena” izateko eskubidea da, eta hori osasun publikoko ekintzek bermatu behar dute. Osasun mentalarekin lotutako arazoak eta nahasmenduak maila desberdinetan agertzen dira eta giza eskubideei, osasun- eta gizarte-zerbitzuen sistemei dagozkie, eta horien elkargunean, eremu sozio-sanitarioari.

Osasun mentalari lotutako arazoak prebenitzea lehen mailako gizarte-erronka da, eta ezinbestean berretsi behar dugu oso garrantzitsua dela ahalik eta goizen antzeman eta artatzea, eta lehen mailako arretak zeregin jakin bat duela prozesu horretan.

COVID-19aren pandemiak sortu duen gizarte- eta osasun-egoerak biztanle guztiei eragin die. Alabaina, gizarte-krisi gehienetan gertatu ohi den bezala, bereziki eragiten die fisikoki, psikologikoki eta gizarte mailan ahulenak direnei, are gehiago lan-prekarietate egoeran baldin badaude eta komunitatean edo familian laguntza-sarerik ez badaukate.

Pandemiak estres existentzial handiko egoerak piztu ditu, arreta-eskaerak areagotu ditu eta agerian utzi du eskura dauden sistemek eta baliabideek agian gabeziak dituztela (maila sozialean nahiz indibidualean).

Ikerketa Soziologikoen Zentroaren arabera, Espainiako estatuan, pandemia hasi zenetik hona, biztanleen %6,4 joan dira osasun mentaleko profesional batengana sintomaren batengatik, horien artean ehunekorik handiena, %43,7, antsietateagatik eta %35,5 depresioagatik.



OMEk 2020ko erdialdera egindako inkesta batek argi erakutsi zuen pandemia-aldian nabarmenki eten zirela nahasmendu mental edo neurologikoak eta sustantziak kontsumitzeagatikoko kasuak artatzeko zerbitzuak.

Honatx sakon hausnartu beharreko datu bat: Euskadin, 2020an, buru-hiltzeak %27,2 areagotu ziren 2019. urtearen aldean, eta iaz 187 pertsonak egin zuten beren buruaz beste.

Beraz, aurre egin beharreko erronken artean, gizartea sentikorrago bihurtzen eta estigma erauzten lan egin behar da, eta arreta jarri behar da edozein zailtasun edo arazo goiz prebenitzen eta antzematen, larriagotu ez dadin edo edonor bere burua arriskuan jartzera eraman ez dezan.

Ikastaro hau goizeko bi saiotan egingo da. Osasun mentalaren oraingo egoera abiapuntu hartuta, Euskadin osasun mentalari arreta emateko dagoen ereduaren indarguneak eta ahulguneak azertu nahi dira.

Era berean, osasun mentala zaintzeko orduan funtsezkoak diren faktoreak detektatzera bideratuta dago: batez ere, arriskuei aurrea hartzea, horiek antzeman eta kontrolatzea, zerbitzuetara irispidea izatea, profesionalen arteko harremanak eta koordinazioa, baliabide espezializatueta bideratzea, baita ere beste eragile batzuekin eta komunitatearekin berarekin hitz egitea.

Horrela, xede diren kolektiboentzako politika publikoak azertu nahi dira, eta horien eskubideak zertan diren.

Ikastaroa bi hitzaldi eta hiru mahai-ingurutan egituratuko da.

Norentzat da? Ikasleentzat, osasun mentalarekin lotutako sistemetako (osasun-, gizarte-, hezkuntza-sistemak, e.a.) profesionalentzat, eragindako pertsonen elkarteentzat, defentsa-erakundeentzat eta osasun publikoko adituentzat.



EGITARAUA

Uztailak 7. Lehen saioa

- 8:45 **Akreditazioak eta agiriak ematea**
- 9:00 **Ikastaroaren hasiera**
Manuel Lezertua. Arartekoa.
- 9:20 **I. ponentzia: Nahasmendu mentala: argi-itzalak. Proposamen batzuk.**
- Aurkezpena:
- Hizlaria: Mariano Hernández. Tetuango (Madril) Osasun Mentaleko Zerbitzuko buru ohia
- 10:00 **II. ponentzia: "Psikopatologia"ko zainketak XXI. mendean: bi eredu talka egiteko bidean.**
- Aurkezpena:
- Hizlaria: Jorge Luis Tizón. Kataluniako Generalitateko Osasun Mentaleko Plan Zuzentzaileko Batzorde Iraunkorreko kide izan zen, baita komunitateko osasunaren arloan artatu eta prebenitzeko talde pilotu batzuetakoa ere. Ramón Lull Unibertsitateko irakaslea (Bartzelona).
- 10:40 **Eztabaida**
- 11:00 **Atsedena**
- 11:30 **I. Mahai ingurua: Euskadiko osasun mentala artatzeko ereduari hurbiltzea**
- Osasun mentalarik Euskadin ematen zaion arreta.
 - Hizlaria: José Antonio de la Rica. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arreta soziosanitarioko zuzendaria.
 - Hurrekin eta nerabeekin esku hartzea.
 - Hizlaria: Fernando González. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Haur eta Nerabeen Osasun Mentalaren Zerbitzuko burua.
 - Helduekin esku hartzea.
 - Hizlaria: Luis Pacheco. Bilbo Eskualdeko Zerbitzuko burua. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea. Osakidetza.
 - Ospitaleetako esku-hartzeak.
 - Hizlaria: Ana González-Pinto. Arabako ESIko Psikiatriako burua. Psikiatria eta Osasun Mentaleko Espainiako Fundazioko lehendakaria.
- 14:00 **Lehen saioaren amaiera**



Uztailak, 8. Bigarren saioa

9:00 II. Mahai ingurua: Prebenitzea eta goiz artatu eta detektatzea

- Bizitzari lotzea, osasun mentala izateko eta buru-hiltzearen aurkako prebentzio-neurri gisa.
 - Hizlaria: Manuel Hernanz. Psikologo klinikoa.
- Lehen arretako zerbitzuak, ondoezaren eta nahasmendu psikikoaren hartzaileak.
 - Hizlaria: Ander Retolaza. Bizkaiko Osasun Mentaleko Zentroko burua.
- Zein garrantzitsua den nahasmenduak goiz detektatzea.
 - Hizlaria: Ana María Jiménez. Psikiatria eta Osasun Mentaleko Zerbitzua, Alcázar de San Juan.
- Zein garrantzitsua den “Kasuak partekatzen” sareko lana. Norbanakoaren ikuspegi holistikoa.
 - Hizlaria: Cristina Erausquin. Irungo Osasun Mentaleko Unitateko psikiatra-burua. Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea. Osakidetza.

11:00 Atsedena

11:30 III. Mahai ingurua: Osasun mentala artatzeko, sektoreen arteko koordinazioa behar da politika publikoetan

- Osasun mentala eta zerbitzuak barneratzea: erronkak, ikuspuntuak eta proposamenak.
 - Hizlaria: Fernando Fantova. Gizarte-aholkularia.
- Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa
 - Hizlaria: José Uriarte. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko helduen programako burua.
- Zein garrantzitsuak diren gizarte-sarea eta etxebizitza osasun mentala artatzeko
 - Hizlaria: María José Cano. FEDEAFESeko gerentea.
- Hobetu egin behar da gizartean baztertuta eta osasun mentaleko arazoekin dauden pertsonak artatzeko sistema, eta beste sistema batzuekin koordinatu behar da.
 - Hizlaria: Garbiñe Delgado. Balorazio, artatze eta jarraipen prozesuaren arduraduna indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak Gizarteratzeko eta Artatzeko Zerbitzuan. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Koordinazio soziosanitarioko arazoak
 - Hizlaria: Gotzon Villaño. Arabako Osasun Mentaleko Sareko gizarte-langilea.

13:30 Itxiera

Inés Ibáñez de Maeztu. Arartekoaren ondokoa